

2011-04-27AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA  
CORPORACIÓN. Día 27-04-2011

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburu ordea

Dorleta Leceta Uribetxebarria

Zinegotziak

Edorta Barandiaran Garcia  
Begoña Eraña Lazkano  
Karmelo Leceta Abasolo  
Ignacio Pierrugues Barberán.  
Unai Salaberria Mugica

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamaikako apirilaren hogeita zazpian, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Dorleta Leceta Uribetxebarria jarduneko alkate andrea buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Lasagabaster, Agiriano, Urrutia eta Merino jaunak eta Otamendi andrea.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día veintisiete de abril de 2011, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia de la Señora Alcaldesa-Presidenta en funciones Dña. Dorleta Leceta Uribetxebarria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten los Srs. Lasagabaster, Agiriano, Urrutia, Merino y la Sra. Otamendi.



## **1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

2011ko martxoaren 30ean egindako osoko bilkurako akta onartu da.

## **2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK ETA ERABAKIAK**

### **2.1.- ERABAKIAK**

2011ko apirilaren 19ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Berariaz eman da ondoren adierazten diren Alkate erabakien eta idazkaritza-kontuhartzaitzak 2010eko aurrekontuaren kitapenarekin eta horien bidez onartzen diren kreditu aldaketa espedienteekin lotuta aurrekontu egonkortasun printzipioari buruz egindako txostenen berri.

Bertaratutako guztiak erabakien eta horien txostenen jakitun gelditu dira.

### **229. DEKRETUA**

*Fondoan kontuhartzailleak egindako 2010eko Udal aurrekontuen likidazioa eta hori osatzen duten dokumentuak ikusirik eta horrekin ados egonik, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 49.3 artikulua ematen dizkidan eskumenak erabilia, Alkate naizen honek honako hau*

### **ERABAKI DUT**

**Lehenengo.-** 2010eko udal aurrekontuaren kitapena onartzea. Hona hemen kitapenaren laburpena:

1.- Diruzaintzako fondo likidoak 2010-12-31n		2.070.209,01
2.- Kobratzeko dauden saldoak 2010-12-31n		2.372.830,73
Aurrekontu-zordunak	1.985.793,22	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	387.037,51	
- Ezartzeko dauden kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaintzeko dauden saldoak 2010-12-31n		887.824,15
Aurrekontuko hartzekodunak gastuak:	587.951,44	
Aurrekontuko hartzekodunak sarrerak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	299.872,71	
- Ezartzeko dauden ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzeko geldikin gordina (1+2-3):		3.555.215,59
5.- Zalantzako kobragarritasuneko saldoak:		464.061,01
6.- Diruzaintzako geldikina (4-5)		3.091.154,58
7.- Eraginpeko finantzaketa bidezko gastuetarako diruzaintzako geldikina:		1.157.190,67
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako geldikina (6-7):		1.933.963,91
9.- Indarrean dagoen aurrekontuko aurrekontu-eragiketen emaitza:		924.249,33
10.- Aurreko ekitaldietako aurrekontu likidatuetako eragiketen emaitza.		-100.853,40



11.- Diruzaintzaren geldikinez finantzatutako betebeharrekin doikuntza:	738.019,38
12.- Eraginpeko finantzaketa duten gastuetan izandako desbideratzetan doikuntzak:	-813.789,12
13.-Aurrekontuaren emaitza (9+10+11+12):	747.626,19
14.- Txerta daitezkeen kreditu geldikinak:	1.484.721,14
15.- Kreditu ez txertagarrien geldikina:	187.724,15
16.- Kreditu geldikinak guztira (14+15):	1.672.445,29

**Bigarrena.-** Erabaki honen kopia Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea lehen aipatutako Foru Arauko 49.5 artikuluan jarritako betetzeko.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau Udalbatzarrari jakinaraztea egingo den lehenengo osoko bilkuran.

Eskoriatzan, 2011ko martxoaren 30ean.

Alkatea

#### ALKATE ERABAKIA

**ZKIA:** 230

**DATA:** 2011.03.30

**Espedientea:** 2011KKRA0001

**GAIA:** Kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako 3 zenbakidun espedientea onartzea

UDAL honetako Aurrekontuari eragiten dion Kreditu Gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea ikusita.

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAK egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Aurreko guztia kontutan izanik, eta Foru Arauaren 34.3 artikuluan eta 2009ko ekitaldirako onartutako Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren 6-1 artikuluan jasotako eskumenak erabilia, Alkate naizen honek honako hau

#### ERABAKI DA

**Lehena.** - UDAL honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion Kreditu Gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

#### KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
1	Pertsonal Gastuak.	61.278,33 €
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak.	49.272,00 €



4	Transferentzia Arruntak.	22.000,00 €
6	Inbertsio errealak.	84.553,44 €
7	Kapital transferentzia.	25.000,00 €
<b>GEHIKUNTZAK GUZTIRA...</b>		<b>242.103,77 €</b>

#### FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	GEHIKUNTZAK
8	Finantza Aktiboak	242.103,77 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>242.103,77 €</b>

**Bigarrena.**- Udal Batzarrari hurrengo bileran erabaki honen berri ematea.

Eskoriatzan, 2011ko martxoaren 30ean.

ALKATEA

ALKATEAREN ERABAKIA

**ZENBAKIA:** B11/00231

**DATA:** 2011/03/30

**GAIA:** KREDITU ALDAKETA: TXERTAKETA (inkorporazioa)

**ESPEDIENTEA:** 2011KKRI0001

Eskoriatzako Udalaren 2011ko Aurrekontuan kreditu aldaketa espedientea tramitatu da, aurreko urteko Aurrekontuko kreditu soberakinak txertatzeko.

Aipatutako espedientea aztertu ondoren, Hazienda eta Kontuen batzordeburuak egindako aldeko txostena eta onepen proposamena ere aztertu ditugu, eta baita espedientean egindako gainerako jarduketak ere.

Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 32.6. artikuluan kreditu txertaketa

onesteko ematen dizkidan eskumenez baliatuz, Alkate naizen honek honako hau

#### ERABAKI DUT

**Bat.**- 4 zenbakidun kreditu aldaketa espedientea onartzea -aurreko ekitaldiko aurrekontuko soberakinak 2011ko Aurrekontuari txertatzeari buruzkoa-, ondorengo kapitulu laburpen honen arabera:



#### GASTUAK-GEHIKUNTZAK

Kap.	Izena	Euroak
1	Personal gastuak	
2	Ondare arruntak eta zerbitzuak erostea	73.284,27 €
4	Transferentzia arruntak	800,00 €
6	Inbertsio errealak	1.207.877,13 €
7	Kapital transferentziak	
8	Aktibo finantzarioak	
9	Pasibo finantzarioak	
TXERTATUTAKO SOBERAKINAK GUZTIRA		1.281.961,40 €

#### SARRERAK-FINANTZAKETA

Kap.	Izena	Euroak
7	Kapital Transferentziak	11.805,24 €
8	Aktibo finantzarioak. Diruzaintzako soberakina	1.270.156,16 €
KREDITU TXERTAKETAK GUZTIRA		1.281.961,40 €

**Bi.-** Egintza hau irmoa eta betebeharrezkoa da, bestelako tramite barik; beraz, Fondoan Kontuhartzaitza zerbitzuek, onartutako aldaketa Kontabilitatean sartu beharko dute berehalako ondorioekin, sarreretan zein gastuetan.

Eskoriatzan, 2011ko martxoaren 30ean.

ALKATEA

### **3.- Gai zerrendan hainbat gai sartzea berrestea.**

Dagokien batzorde informatzailearen diktamenik ez dagoenez batzordeetan quorumik egon ez delako, Udalbatzarrak aho batez berretsi du ondorengo gaiak gai zerrendan sartzea

- Eskoriatzako kirol talde eta elkarteei 2011. urtean garatuko dituzten jarduera eta ekintzetarako diru-laguntzak emateko oinarriak hasiera batean onartzea.

### **4.- HAUTESKUNDE MAHAJETARAKO zozketa.**

Datorren maiatzaren 22an Udal hauteskundeak eta Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeak egingo dira. Hauteskunde egun horretarako hauteskunde mahaietako zozketa



egin ondoren, eta horrela indarrean dagoen Hauteskundeen Erregimen Orokorraren Lege Organikoaren 26. artikuluan ezarritakoa bete, Udalbatzarrak aho batez honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Hauteskunde mahaietako osaera onartzea eranskinean izendatutako pertsona eta karguekin.

**Bigarrena.-** Lehenengo Alkateordearen esku uztea, Eskoriatzako Udaleko bozeramileen batzordeak lagunduta, eskualdeko hauteskunde-batzordeak interesdunei alegazioak eta aitzakiak onartzeagatik hutsik geldi daitezkeen karguak betetzeko pertsonak zozketaz aukeratzeko ahalmena.

## **5.- LANEKO JAZARPENARI BURUZKO PRINTZPIOEN ADIERAZPENA onartzea.**

Pertsonal batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak "Laneko jazarpenari buruzko printzipioen adierazpena" onartzea erabakia du. Hona hemen adierazpena hitzez hitz:

*Oinarrizko Eskubideen bortxaezintasunean oinarrituz, -berdintasun-eskubidea, pertsona guztien intimitaterako eta integritate fisiko nahiz moralerako eskubidea eta oinarrizko lan eskubidea-, ESKORIATZAKO UDALA enpresak aitortzen du jazarpen modu guztiek tratu zuzenaren aurkako erasoak izateaz gain, onartu ezin diren eta onartuko ez diren hutsegite larriak direla; eta eskubide horiek aintzat hartuz, **berariaz debekutzen du ahoz zein fisikoki egindako irain bidez pertsonaren duintasuna gutxiestera bideratutako edozein jokaera desegoki.***

*Enpresak langile guztien aukera eta tratu berdintasuna bermatzeko neurriak hartu beharra aitortzen du, eta horretarako jazarpenaren aurkako enpresa-politika hau hartu eta ezarriko du. Politika hori prestakuntza, komunikazio, jarraipen eta ebaluazio estrategietan oinarrituko da, pertsonen arteko harremanetan lankidetzaz, elkarlana eta konfiantza sustatuz.*

*Horretarako, ESKORIATZAKO UDALAK honako hau ezartzen du:*

- 1. Erakundeko pertsona guztiek izango dute kexa jartzeko eskubidea jazarpenik jasaten badute edo jasan dutela uste badute, justizia arrunt bidez har ditzaketen gainontzeko neurri zibil edota penalen kaltetan gabe.*
- 2. Eskubide hori gauzatu ahal izateko **Gatazkak Konpontzeko Prozedura** sortu da, jazarpenak eragindako lan arriskurik gabeko lan giroa bermatzeko; horrek, horrelako jokaerak isilpean, serio eta zorrotz salatu eta ikertu ahal izatea ahalbideratuko du, salaketa prozeduran ez dela inolako ekintza erasotzaile, baztertzaila, bidegabekorik edo errepresalia modura egindakorik onartuko bermatuz.*
- 3. Adierazpen honetan garatutako eskubideak urratzeak zigor neurriak hartzea ekarriko du. Zigorrek barne prozeduran hartutako erabakiaren arabera izango dira.*
- 4. Dilijentzia judizialak irekiz gero, prozedura hau bertan behera geldituko da, hartutako edo hartu beharreko kautela-neurrien kaltetan gabe.*



## **6.- Udalaren eta Telesko Udal Telebistaren 2009ko eta 2010eko ekitaldietako ekonomia eta finantza jardueren kontu-ikuskapena egiteko zerbitzua kontratatzeke espedienteari hasiera ematea.**

Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, Eraña andrearen abstentzioarekin eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideen aldeko botoekin, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Eskoriatzako Udalaren eta Telesko Udal Telebistaren 2009ko eta 2010eko ekitaldietako ekonomia eta finantza jardueren kontu-ikuskapena egiteko zerbitzua publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaz kontratatzeke espedienteari hasiera ematea.

Bigarrena.- Kontratazioa arautuko duen administrazio baldintza partikularren agiria onartzea.

Hirugarrena.- Kontratuaren helburua egiteko gai diren hiru enpresa, gutxienez, gonbidatzea.

Laugarrena.- 29.500 €-ko gastua baimentzea indarrean dagoen aurrekontuko 0201.227.611.00.30 partidaren kontura.

Bosgarrena.- Kontratuaren zenbatekoaren arabera, Alkatea edo hori ordezkatzeko duen zinegotzia izatea kontratazio organoa.

## **7.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO FORU KONTRATAZIO ZENTRALEKO eskuratzeko zentralizatuko sistemari atxikitzeke erabakia.**

Gipuzkoako Foru Aldundiak otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuz foru kontratazioa arautzeko araudia onartu zuen, eta horren barruan dago Foru Kontratazioen Zentrala sortzea, kontratazioerako laguntza organo bat izango dena, hain zuzen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki entitateetako eta horien menpeko entitateetako nahiz foru sektore publikoa osatzen duten entitateetako kontratazio organoei laguntzeko, aipatu entitateak kontratazio sistema honi askatasunez atxikitzen zaizkion neurrian

Foru Kontratazioen Zentrala sortuta, alde batetik, kontratuaren baldintza ekonomiko hobeak lortu nahi dira aipatutako kontratuaren, eta horrela kontratazio zentralizatuko sistema sortu berriari atxikitzen zaizkion entitateen gastu publikoa txikitu; eta, beste aldetik, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko tramitazio administratiboa sinplifikatu nahi da, aldi berean kontratazio gaietan garrantzitasuna eta segurtasuna indartuz.

Aurreko atalean aipatutakoaren harian, Foru Kontratazioen Zentralaren helburu nagusia honako hau da: Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki entitateei eta horien menpeko entitateei nahiz foru sektore publikoa osatzen duten entitateei, kontratatu behar dituzten ondasun, zerbitzu eta hornidurak kontratatzeke lanak erraztea, horretarako kostuak gutxitu, eskuratzeko denborak laburtu eta tramiteak sinplifikatu ditzakeen sistema bat antolatuta.

Eskoriatzako Udalak Aldundiarekin eta beste udal eta erakunde batzuekin indarrak bildu nahi ditu interes komuneko hornidurak eta zerbitzuak kontratatzeke, horrela kontratazio prozedurak prestatzeke lanak eta exekuzioa sinplifikatzeko, eta batez ere, eskalako ekonomia bidez baldintza ekonomiko hobeak lortzeko.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:



**Lehenengoa.-** Gipuzkoako Foru Aldundiko Foru Kontratazioen Zentralean gauzatutako eskuratze zentralizatuko sistemari ATXIKITZEA honekin batera eranskin gisa doan hitzarmen zirriborroan jasota bezala.

**Bigarrena.-** Dorleta Lezeta Uribeetxeberria Lehenengo Alkateorde andreari ATXIKIMEN HITZARMENA sinatzeko ahalmena ematea.

ERANSKINA

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN  
ESKURATZE ZENTRALIZATUKO  
SISTEMARI – FORU KONTRATAZIOEN  
ZENTRALARI ATXIKITZEKO HITZARMEN  
EREDUA**

**MODELO DE CONVENIO DE ADHESIÓN AL  
SISTEMA DE ADQUISICIÓN  
CENTRALIZADA - CENTRAL DE  
CONTRATACIÓN FORAL DE LA  
DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA.**

Donostia, \_\_\_\_\_

En Donostia-San Sebastián, a  
\_\_\_\_\_

**BATZARTU DIRA:**

**REUNIDOS:**

Alde batetik, (IZENA), Gipuzkoako Foru Aldundiko (KARGUA), Aldundiaren izenean eta ordezkartzan diharduela, (ERABAKIAK) esleitzen dizkion ahalmenez baliatuz.

De una parte \_\_\_\_\_, en su calidad de \_\_\_\_\_ de la Diputación Foral de Gipuzkoa, actuando en nombre y representación de la misma en virtud de las atribuciones que le confiere

Bestetik, (IZENA), (ENTITATE)ko (KARGUA), erakundearen izenean eta ordezkartzan diharduela, (ERABAKIAK) esleitzen dizkion ahalmenez baliatuz.

De otra parte \_\_\_\_\_, en su calidad de \_\_\_\_\_ de ( entidad) \_\_\_\_\_, actuando en nombre y representación del mismo en virtud de las atribuciones que le confiere

Bi aldeek, zer ordezkartza duten kontuan harturik, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ESKURATZE ZENTRALIZATUKO SISTEMARI – FORU KONTRATAZIOEN ZENTRALARI ATXIKITZEKO HITZARMENA izenpetzeko eta ordezkartzen duten pertsona juridikoa han hitzartutakora behartzeko behar adinako ahalmena aitortzen diote elkarri.

Ambas partes se reconocen, en la representación que ostentan, capacidad bastante para la firma del presente CONVENIO DE ADHESIÓN AL SISTEMA DE ADQUISICIÓN CENTRALIZADA-CENTRAL DE CONTRATACIÓN FORAL DE LA DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA, y para obligar en los términos del mismo a la persona jurídica que representan.

Horrela, hurrengo azalpenak egiten eta klausulak ezartzen dituzte:

En virtud de ello,

**AZALPENAK:**

**EXPONEN**





**LEHENA:** Gipuzkoako Foru Aldundiak, \_\_\_\_\_ Foru Dekretuaren bitartez, kontratazio zentralizatuko sistemaren araudia onartu eta Foru Kontratazioen Zentrala sortu du, kontratazioarako laguntza organo bat izango dena, hain zuzen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki entitateetako eta horien menpeko entitateetako nahiz foru sektore publikoa osatzen duten entitateetako kontratazio organoei laguntzeko, aipatu entitateak kontratazio sistema honi askatasunez atxikitzen zaizkion neurrian. Foru Kontratazioen Zentralak laguntza emango die aipatu entitateei beren ezaugarriengatik erabilera orokorrekoak diren ondasun, zerbitzu eta horniduren kontratazioan.

**BIGARRENA:** Foru Kontratazioen Zentrala sortuta, alde batetik, aipatu kontratuaren baldintza ekonomiko hobeak lortu nahi dira, eta horrela kontratazio zentralizatuko sistema sortu berriari atxikitzen zaizkion entitateen gastu publikoa txikitu; eta, beste aldetik, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko tramitazio administratiboa sinplifikatu nahi da, aldi berean kontratazio gaitan gardentasuna eta segurtasuna indartuz.

**HIRUGARRENA:** Aurreko atalean aipatutakoaren harian, Foru Kontratazioen Zentralaren helburu nagusia honako hau da: Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki entitateei eta horien menpeko entitateei nahiz foru sektore publikoa osatzen duten entitateei, kontratatu behar dituzten ondasun, zerbitzu eta hornidurak kontratatuzko lanak erraztea, horretarako kostuak gutxitu, eskuratzeko denborak laburtu eta tramiteak sinplifikatu ditzakeen sistema bat antolatuta.

**LAUGARRENA:** \_\_\_\_\_ (ENTITATEAK), \_\_\_\_\_ (ORGANOAREN) \_\_\_\_\_ (EGUNEKO) erabakiz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Kontratazioen Zentralak aurrera eramango duen eskuratzeko zentralizatuko sistemari atxikitzea erabaki zuen.

Horren ondorioz, segidan zehazten diren klausulak dituen ATXIKIPEN HITZARMEN HAU izenpetzea erabaki dute bi aldeek. KLAUSULAK:

#### **LEHENA.- HITZARMENAREN XEDEA**

Hitzarmen honen bitartez, \_\_\_\_\_ (ENTITATEA) Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuratzeko zentralizatuko sistemari atxikitzen zaio; beraz, Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez kontratatu ahal

**PRIMERO:** Que la Diputación Foral de Gipuzkoa, por Decreto Foral \_\_\_\_\_, aprobó la normativa reguladora de la contratación centralizada, que incluye la creación de una Central de Contratación Foral, configurándola como órgano de asistencia de los órganos de contratación de las entidades locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa y de sus entes dependientes así como de los entes que conforman el sector público foral, que se adhieran libremente a este sistema; en concreto, la Central de Contratación Foral asistirá a las entidades citadas en la contratación de bienes, servicios y suministros que, por sus especiales características, sean susceptibles de ser utilizados con carácter general.

**SEGUNDO:** Que con la creación de la Central de Contratación Foral se pretende lograr las condiciones económicas más ventajosas en los contratos señalados, con la consiguiente reducción del gasto público de los entes adheridos al sistema de contratación centralizada que se articula y, al tiempo, simplificar la tramitación administrativa en la adquisición de bienes y servicios, potenciando a la vez la transparencia y seguridad en la contratación.

**TERCERO:** Que, en concordancia con lo señalado en el apartado anterior, es objeto fundamental de la Central de Contratación Foral facilitar a las entidades locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa y a sus entes dependientes así como a los entes que conforman el sector público foral, la contratación de bienes, servicios o suministros que les sean necesarios, articulando un sistema que permita el ahorro de costes, la minoración de tiempos de adquisición y la simplificación de su tramitación.

**CUARTO:** Que la entidad (indicar entidad) por acuerdo de (indicar órgano que adopta el acuerdo), de fecha (indicarla), acordó adherirse al sistema de adquisición centralizada materializado en la Central de Contratación Foral de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En consecuencia, las personas firmantes acuerdan suscribir el presente CONVENIO DE ADHESIÓN con arreglo a las siguientes cláusulas:

#### **PRIMERA.- OBJETO DEL CONVENIO**

El objeto del presente CONVENIO es la adhesión de (entidad) al sistema de adquisición centralizada de la Diputación Foral de Gipuzkoa, pudiendo, por tanto, contratar los bienes, servicios o suministros que se



izango ditu zehazten diren ondasun, zerbitzu eta hornidurak, horrelakoak kontratatzeko garaian Foru Aldundiak enpresa esleipendunekin egiten dituen esparru akordioetan ezarritako baldintzetan eta prezioetan.

Atxikipen honek ez dakar berekin kontratazio guztiak Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez egin beharrik; (ENTITATEAREN) esku dago sistema hau ondasun, zerbitzu edo hornidura guztietarako edo batzuetarako bakarrik erabili erabakitzea.

Nolanahi ere, (ENTITATEAK) zein ondasun, zerbitzu edo hornidura kontratatzeko esparru akordiotan sartzen den argitu behar du, kasuan kasuko esparru akordioaren baldintza-agiriak onartu baino lehenago (ENTITATEAREN ORGANOAK), akordio horri atxikitako entitate bezala agertzeko. Edozein esparru akordiori atxikitzeak haren indarraldi osorako izango du balioa.

Ildo berean, (ENTITATEAK) sartuta dagoen esparru akordio batetik atera nahi badu, hartatik bereizten dela jakinarazi ahal izango du, esparru akordio hori berriro lizitatzeko asmoa dagoela adierazten zaionean.

## **BIGARRENA.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN BETEBEHARRAK.**

Eskuratu beharreko ondasunak nahiz hornidurak edo eman beharreko zerbitzuak ondo aukeratzeko bidea erraztearren, Gipuzkoako Foru Aldundiak:

- Entitatea jakinaren gainean jarriko du ondasun, zerbitzu edo horniduraren bat kontratatzeko esparru akordioaren bat tramitatzeko asmoa duenean, eta entitateak zenbateko gastu aurreikuspena duen galdetuko du, baldintza-agiriak onartzeko aurreikusitako data baino hilabete lehenagotik, bitarte horretan entitateak kontsumoak zehazteko behar den informazioa eta ezaugarri teknikoaren agiria prestatzeko egokiak diren beste datuak eman diezazkion. Horretarako, eta egoki irizten dituen beste proposamenak egiteko, ezaugarri teknikoaren agiriaren zirriborroa helaraziko dio entitateari.
- Entitateari jakinaraziko dio esparru akordioa zein enpresari (edo enpresei) esleitu zaion, eta zer baldintzetan –entrega data, bermeak,

determinen a través de la Central de Contratación Foral, en las condiciones y precios vigentes en los acuerdos marco celebrados por la Diputación Foral con las empresas adjudicatarias en el momento de la contratación de dichos bienes, servicios o suministros.

Esta adhesión no supone la obligación de efectuar todas las contrataciones a través de la Central de Contratación Foral, pudiendo optar (la entidad) por utilizar este sistema para todas los bienes, servicios o suministros o para una parte de ellos.

En todo caso (la entidad) deberá indicar los acuerdos marco de bienes, servicios o suministros a los que se adhiere, con anterioridad a la aprobación de los pliegos del acuerdo marco correspondiente, a fin de figurar en los mismos como entidad adherida. La adhesión tendrá validez para todo el periodo de vigencia del acuerdo marco.

Del mismo modo, (la entidad) podrá comunicar su desvinculación de un acuerdo marco al que se encuentre adherido cuando se le comunique una nueva licitación de dicho acuerdo marco.

## **SEGUNDA.- OBLIGACIONES DE LA DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA.**

Con objeto de facilitar la selección adecuada de los bienes o suministros a adquirir o los servicios a prestar, la Diputación Foral de Gipuzkoa:

- Comunicará la intención de tramitar un acuerdo marco para la contratación del tipo de bien, servicio o suministro que corresponda y recabará información sobre la previsión de gasto de la entidad con una antelación de un mes a la fecha prevista de aprobación de los pliegos, a fin de que en dicho plazo, la entidad suministre la información necesaria para concretar los consumos y otros datos que resulten pertinentes para la confección del pliego de prescripciones técnicas. Para ello y para que pueda proponer las consideraciones que estime oportunas, remitirá un borrador de dicho pliego a la entidad.
- Informará de la/s empresa/s adjudicataria/s del acuerdo marco y de las condiciones del acuerdo tales como el plazo de entrega,



eta abar-, eta, indarrean dagoen bitartean aldaketarik izaten badu, haien berri ere emango die.

Informazio hori ATXIKIPEN HITZARMEN HAU sinatzen duen (ENTITATEAK) adierazten dituen organoei emango zaie.

Dena dela, informazio hori eskuragarri egongo da Internet bidez, esleitutako ondasunen eta zerbitzuen katalogoak, ezaugarriak eta prezio eguneratuak kontsultatzeko gunera sartuta.

#### **HIRUGARRENA.- (ENTITATEAREN) KONPROMISOAK.**

(ENTITATEAK) betebeharrak hauek ditu:

- Kontratazio gaitan sektore publikoko gainerako entitateek duten araubide juridiko bera onartzea, egiturari eta antolaketari dagozkion salbuespenetan izan ezik.
- Entitatean kontrataziorako eta gastuak onartzeko eskumenen banaketa nolakoa den kontuan hartuta, jakinaraztea eskaerak zein kargudunek sinatu behar dituen eta datuak zein kargudunek eman behar dituen Foru Kontratazioen Zentralak esparru akordioak horiek kontuan hartuta tramita ditzan.
- Entitatearen xehetasunak jakinaraztea: hitzarmen honen arduradunaren harremanetarako helbidea, telefonoa, faxa eta e-maila.
- Esparru akordio bakoitzari buruz, hartan sartuko den ala ez jakinaraztea, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatzen dizkion epeetan.
- Dagokion ezaugarri teknikoaren agiriaren idazketan parte hartzea, bere erakundeari buruzko datuak eman eta, hala irizten badu, egoki jotzen dituen proposamenak eginez.

Ondasun, zerbitzu edo hornidurak eskuratzeko kontratuak, bakoitzari dagokion esparru akordioaren arabera tramitatzea.

garantías, etc., así como todas las modificaciones que puedan tener durante su vigencia.

Esta información será suministrada a los órganos que haya señalado (entidad) que suscribe el presente CONVENIO DE ADHESIÓN.

En todo caso, la información anterior también estará disponible mediante acceso a la consulta, vía Internet de los catálogos de bienes y servicios adjudicados, con sus características y precios actualizados en su caso.

#### **TERCERA.- COMPROMISOS DE (ENTIDAD).**

Son obligaciones de (entidad):

- Asumir el mismo régimen jurídico que el resto de los entes del sector público en materia de contratación, con las salvedades en cuanto a su estructura y organización.
- Comunicar los cargos que, en virtud de sus competencias en materia de contratación y aprobación del gasto, deben suscribir las peticiones y los cargos que deben suministrar los datos que se recaben para que puedan ser tramitados por la Central de Contratación Foral los correspondientes acuerdos marco.
- Comunicar las circunstancias de la entidad: dirección, teléfono, fax y e-mail de contacto de la persona responsable de este convenio.
- Comunicar su anexión o desanexión a cada acuerdo marco concreto en los plazos en que se le solicite por la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Participar en la redacción del correspondiente pliego de prescripciones técnicas, aportando los datos correspondientes a su entidad y proponiendo, en su caso, las consideraciones que estimen oportunas.
- Tramitar los contratos de adquisición de bienes, de servicios o suministros conforme al acuerdo marco correspondiente.



Inoiz gertatzen bada, sinatutako esparru akordioan sartuta dauden ondasun, zerbitzu edo hornidurak kontratatzerakoan, zehaztapen jakin eta berezi batzuk dituela, esparru akordioaren esleipenean jaso gabekoak, orduan (ENTITATEAK) horren jakinaren gainean jarriko du Foru Kontratazioen Zentrala, hau da, ezaugarri eta prestazio bereziak zein diren definitu eta sistema zentralizatutik kanpo kontratatu dituela jakinaraziko dio.

- Foru Kontratazioen Zentrala jakinaren gainean jartzea, baldin hark tramitatutako ondasun, zerbitzu edo hornidurei dagokiena ez bada behar bezala betetzen, guztiz edo neurri batean; alegia, entrega epeetan atzerapenik, edo eskuratutako ondasunetan edo emandako zerbitzuetan akatsik, edo antzekorik izaten baldin bada, behar diren neurriak har daitezten.
- Ondasunen eta zerbitzuen harrera egitea, kontuan izanda ezaugarrietan eta prezioetan bat etorri behar dutela harrerakoek eskaerakoekin; eta, baita, haien prezioa eta dagozkion berrikuspenak ordaintzea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legeak 200. artikuluan xedatutakoaren arabera.

#### **LAUGARRENA.- HITZARMEN HONEN INDARRALDIA**

Atxikipenak hitzarmen hau sinatzen den egunaren biharamunetik aurrera izango du eragina, eta indarrean jarraituko du Foru Kontratazioen Zentralak esparru akordioak egiten dituen bitartean, baldin (ENTITATEAK) salatzen ez badu.

Dena dela, hitzarmena bertan behera uzteko arrazoi izango da, bai bi aldeak horretan ados jartzea, bai bietako batek hitzarmen honetako baldintzak modu larrian ez betetzea.

#### **BOSGARRENA.- AUZIAK EBAZTEA**

Hitzarmen hau aplikatzeari, interpretatzeari edo betetzeari dagokienez auzirik sortzen bada, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioak izango du ebazteko eskumena.

Eta adostasunaren seinale, bi aldeek hitzarmen honen

Excepcionalmente, cuando de la contratación de bienes, servicios o suministros incluidos en los acuerdos marco a que se refiere el compromiso suscrito, se derive que tiene especificaciones concretas y determinadas que no figuran entre las adjudicadas en aquéllos, (la entidad) lo pondrá en conocimiento de la Central de Contratación Foral, definiendo las características y prestaciones singulares y comunicando su contratación al margen del sistema centralizado.

- Poner en conocimiento de la Central de Contratación Foral cualquier incumplimiento total o parcial relacionado con los bienes, servicios o suministros tramitados, tales como las demoras en los plazos de entrega, defectos en los bienes suministrados o en la prestación de servicios u otros, para la adopción de las medidas oportunas.
- Efectuar la recepción de los bienes o servicios, que deberán coincidir con las características y precios con los que figuran en la correspondiente petición, así como abonar el precio y las posibles revisiones conforme a las previsiones establecidas en el artículo 200 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público.

#### **CUARTA.- VIGENCIA DEL PRESENTE CONVENIO.**

La adhesión surtirá efecto desde el día siguiente a la fecha de la firma del presente convenio y mantendrá su vigencia mientras la Central de Contratación Foral celebre acuerdos marco, salvo denuncia de (la entidad).

No obstante, será causa de resolución el mutuo acuerdo de ambas partes o el incumplimiento grave de estas condiciones por alguna de estas.

#### **QUINTA.- RESOLUCION DE LITIGIOS.**

Las cuestiones litigiosas que puedan plantearse respecto de la aplicación, interpretación y cumplimiento de este convenio serán competencia del orden jurisdiccional contencioso-administrativo.

Y en prueba de conformidad lo firman por duplicado



bi ale sinatzen dituzte, idazpuruan ageri diren tokian eta egunean.

ejemplar, los intervinientes en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

**8.- Gipuzkoako Foru Aldundiak esparru-hitzarmen bidez argindar hornidura kontratatzeke hasitako espedienteari ATXIKITZEKO erabakia.**

Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Gipuzkoako Foru Aldundiak esparru-hitzarmen bidez argindar hornidura kontratatzeke hasitako espedienteari ATXIKITZEA.

**Bigarrena.-** Dorleta Lezeta Uribeetxeberria Lehenengo Alkateorde andreaki ATXIKIMEN HITZARMENA sinatzeko ahalmena ematea.

**9.- Santa Marina 9 HIEko sustapenean udal etxebizitza tasatuak aldatzeko baimenari buruzko erabakia.**

VISESAk 32 udal etxebizitza tasatu erregimen berezian egiteko sustapena egin du Santa Marina HIEko a.20/1-C eta a.20/1-D lurzatietan.

Etxebizitza Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak egindako hautaketa prozesuaren ondoren, eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eta Eskoriatzako Udalak sinatutako lankidetzak hitzarmenean jasotako irizpideei jarraituz, hainbat esleipendunek eskatu dute esleitutako etxebizitza oraindik ere esleitu gabe gelditzen diren sustapeneko beste batetatik aldatzea .

Eusko Jaurlaritzan egin beharreko gestioak eginda, Etxebizitza Sailburuordetzatik jakinarazi digute Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuak-ETXEBIDEK ez duela inolako eragozpenik jarriko aldaketa horiek egiteko eroslea eta saltzailea ados baldin badaude eta Udaleko organu eskudunak aldaketak egiteko baimena ematen baldin badu.

Alkatetzak beharrezko gestioak egin ditu interesa daukaten esleipendun guztiek beraiei esleitutako etxebizitza aldatzeko aukera izan dezaten. Gestio horiek eginda, bakarrik ondoren adieraziko diren pertsonak adierazi dute ez daudela ados esleitutako etxebizitzarekin eta sustapeneko beste batetatik aldatzeko prest daudela.

ESLEIPENDUNAK

ESLEITUTAKO ETXEBIZITZA/GARAJE/TRASTELEKUA

Leire Zubizarreta Izurategui  
zenbakia

2. eskapea- 1. solairua, B letra/ 17. zenbakia-/ 2.

Leire Otamendi Tolosa eta Jon

1. eskapea-2. pisua, B letra/ 21. zenbakia-/ 4. zenbakia

Nuño Vitoria



Interesatuekin ados jarri ondoren, Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Baimena ematea Leire Zubizarreta Izurategui andreari berari esleitu zitzaion eta aurrekarietan aipatu den etxebizitza 2. eskapeko 2. solairuko B letrako etxebizitzagatik eta horri lotutako eranskinengatik aldatzeko.

**Bigarrena.-** Baimena ematea Leire Otamendi Tolosari eta Jon Nuño Vitoriari beraiei esleitu zitzaion eta aurrekarietan aipatu den etxebizitza 3. eskapeko 3. solairuko B letrako etxebizitzagatik eta horri lotutako eranskinengatik aldatzeko.

### **10.- San Pedro 9ko, 5. ezk. eta 5. esk. helbidetako etxebizitzaren behin betiko desafekzioa.**

Udalbatzarrak, 2011ko otsailaren 23an egindako osoko bilkuran, San Pedro 9ko, 5. ezk. eta 5. esk. helbidetako etxebizitzaren KALIFIKAZIO JURIDIKOA ALDATZEKO erabakia hartu zuen, jabari publikotik desafektatu eta ondare ondasun bezala kalifikatuz.

Irekitako espedientea hilabetez egon da jendaurrean, -2011ko martxoaren 7tik 2011ko apirilaren 7ra arte-, iragarki oholean eta 2011ko martxoaren 7ko GAOn (44 zenbakia) jarritako EDIKTUAN adierazi bezala; eta denbora horretan ez da jaso alegaziorik.

Aurrean esandakoa kontutan hartuta, Udalbatzarrak, aho batez, eta legeak eskatzen duen gehiengo absolutuaren quoruma osatuta, honako hau ERABAKI DU:

1. San Pedro 9ko, 5. ezk. eta 5. esk. helbidetako etxebizitzaren kalifikazio juridikoaren aldaketa behin betiko onartzea, eta beraz, jabari publikotik desafektatu eta ondaren ondasun bezala kalifikatzea.

### **11.- Lanpostu Zerrendaren aldaketa, lanpostuen balorazioa eta giza baliabideak arrazionalizatzeko programa onartzea.**

Lanpostuak aztertzeko eta baloratzeko jarraitutako prozedura ikusita.

Eta, langileen legezko ordezkariekin izandako negoziazioen emaitzak eta Pertsonal batzorde informatzaileak egindako proposamena ikusita, Udalbatzarrak, bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, honako hau ERABAKI DU:

1.- Udal lanpostuak baloratzeko prozedura baliozkotzat jotzea eta lanpostu zerrenda (LPZ) eta horri egindako aldaketak 1 ERANSKINEAN agertzen diren moduan onartzea. Erabaki horretan Obra Publikoetako Udal Ingeniari Tekniko lanpostu berriaren deskribapena eta balorazioa jasotzen dira.

2.- Obra Publikoetako Udal Ingeniari Tekniko (OPIT) lanpostu berriari 4. hizkuntza eskakizuna jartzea, eta derrigortasun data 2011-04-27a, guzti hori Euskal Funtzio Publikoaren Legeak 97.5 artikuluan eta Euskal Autonomia Elkarte herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 1997/86 Dekretuaren 23. artikuluan jasotzen dena betez.

3.- Osagarri espezifikoaren zenbatekoa finkatzeko, puntuaren balioa 18,50 eurotan finkatzea.



4.- Balorazioa erabaki honen ondorengo lehenengo nominatik aplikatuko da. Balorazio berriak ordainketa kontzepturen batean jaitsiera dakarren kasuetan, jaitsiera hori konpentsatzeko banakako aldi baterako osagarria jasotzeko eskubidea emango da "ad-personam". Osagarri hori ez da "zurgagarria" izango etorkizunean onartu daitezkeen ordainketa igoerekiko.

5.- Giza baliabideak arrazionalizatzeko 2011rako programa onartzea.

6.- LPZ berria eta giza baliabideak arrazionalizatzeko programa Udaletxeko iragarki oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea.

## **12.- 2001. urterako plantilla organikoaren aldaketa onartzea.**

Udalbatzarrak, 2010eko abenduaren 29an egindako bilkuran, Eskoriatzako Udaleko 2011rako plantilla organikoa onartu zuen. Erabaki hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2011ko urtarrilaren 13an.

Lanpostu zerrenda aldatuta, ondorengo lanpostuak aldatzen dira giza baliabideen aprobetxamendua hobetzeko asmoarekin:

- EGINBEHAR ANITZETAKO ARDURADUNA (C2 azpitaldea) EGINBEHAR ANITZETAKO ARDURADUNA (C1 azpitaldea) izatera pasatzen da.
- 2 PEOI (E taldea) EGINBEHAR ANITZETAKO A LANGILEA ETA EGINBEHAR ANITZETAKO B LANGILEA (C2 azpitaldea) izatera pasatzen dira.
- PEOI-LURPERATZAILEA (E taldea) A PEOI-LURPERATZAILEA (C2 azpitaldea) izatera pasatzen da.
- PEOI-LURPERATZAILE LAGUNTZAILEA (E taldea) B PEOI-LURPERATZAILE LAGUNTZAILEA (C2 azpitaldea) izatera pasatzen da.

Udalbatzarrari onartzeko proposatutako giza baliabideak arrazionalizatzeko programan adierazten denez, aldaketa horiek egiteko arrazoiak lanpostu bakoitzera sartzeko baldintzen aldaketa da, baldintzok kasu bakoitzean bete beharreko funtzioetara moldatuta.

Era berean, zerrenda horretan sorrera berriko lanpostua jasotzen da, OBRA ETA ZERBITZU ARLOKO ARDURADUN lanpostua.

Azaldutako arrazoiengatik beharrezkoa da plaza berriak sortzea eta lanpostuaren baldintzekin bat ez datozenak amortizatzea.

Azaldutako arrazoiengatik, Pertsonaleko Batzorde Informatiboak egindako proposamenarekin bat etorritik, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

